



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko abenduaren 20an

114 ZK.

A U R K I B I D E A

D SAILA:

Hitzarmenak:

—Lankidetzaren hitzarmena, Estatuko Administrazio Orokorren eta Nafarroko Foru Gobernuaren eta Tafallako Udalaren artean, “Miguel Induráin” udal belodromoan kirol azpiegiturak eraiki eta materialaz hornitzeko (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

—Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egin (5. or.).

D saila:
HITZARMENAK

Lankidetzaren hitzarmena, Estatuko Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Gobernuaren eta Tafallako Udalaren artean, "Miguel Induráin" udal belodromoan kirol azpiegiturak eraiki eta materialaz hornitzeko

Nafarroako Parlamentuko 162. artikulua eza-ritakoa betez, Nafarroako Gobernuak ondoko hitzarmenari buruz igorri dituen agiriak Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agintzen da: "Lankidetzaren hitzarmena, Estatuko Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Gobernuaren eta Tafallako Udalaren artean, "Miguel Induráin" udal belodromoan kirol azpiegiturak eraiki eta materialaz hornitzeko".

Iruñean, 2000ko irailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Lankidetzaren hitzarmena, Estatuko Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Gobernuaren eta Tafallako Udalaren artean, "Miguel Induráin" udal belodromoan kirol azpiegiturak eraiki eta materialaz hornitzeko

.....n, 2000koren

Bildurik

Alde batetik, Estatuko Administrazio Orokorra ordezkatuz, Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministro Pilar del Castillo andrea, eta beste aldetik, Nafarroako Foru Gobernuaren ordezkatuz Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilari Calixto Ayesa Dianda jauna.

Beste alde batetik, Tafallako alkate Luis Valero Erro jauna.

Esku hartzen duten alde horiek hitzarmena egiteko lege gaitasuna aitortzen diote elkarri eta, horrenbestez

AZALTZEN DUTE

Lehendabizikoa. 1985ean, Kirolen Kontseilu Nagusiak Nafarroan dagoen belodromo bakarra, Tafallakoa, finantzatu zuen, laurogei milioi pezetako (80.000.000 pezeta) kostuarekin.

Bigarrena. Tafallako Udalak hainbat lan egin zituen, bere aldetik, sarbideak egokitzeko, argiak paratzeko, bai eta kirol instalazio berria hobetu eta osatzeko beste zenbait jarduketara ere.

Hirugarrena. Egindako inbertsioekin ere, instalazioak estaligabeak direnez, belodromoak gutxiegi erabiltzen da, eguraldia dela-eta. Hori ikusirik, ziklismo federazioek eta kirol taldeek eskatu diete botere publikoei belodromoak instalatzea, eta bidenabar instalazioak hobetu eta handitu daitezela, goi mailako lehiaketa nazionalak eta nazioartekoak bertan egin ahal izateko.

Laugarrena. Tafallako Udalak behar ziren kudeaketak egiteari ekin zion, baina inbertsioaren tamainak Tafallako ogasunaren gaitasuna gainditzen zuela ikusirik, Nafarroako Foru Gobernuaren konpromisoa eskatu eta lortu zen, finantzazioan parte har dezan; bestalde, Estatuko Administrazio Orokorren ere belodromoak instalatzeko proiektuan parte hartzeko erabakia hartu zuen, eta horretarako Estatuko 2000. urteko Aurrekontu Orokorretan berrogeita hamar milioi pezetako (50.000.000 pezeta) kontusail bat eratu zuen; horrekin batera urte batzuetarako konpromisoa hartu zuen, hasierako zenbateko hori osatuko duena, seiehun eta hirurogeita bi milioi pezetako (662.000.000 pezeta) gehieneko zenbatekoa egin arte.

Bosgarrena. Nazioko Gobernuaren iritzia da, baita Nafarroako Foru Gobernuarena ere, obra hau hasiera batean udal mailakotzat hartu badaiteke ere, esparru hori gainditzen duela, belodromoak behin betikoz egokitzeko bide emanen bailuke goi mailako lehiaketa asko, nazionalak zein nazioartekoak, bertan egiteko eta beraz, Estatuko Administrazio Orokorren, Nafarroako Foru Gobernuaren

eta Tafallako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmen berrua gauzatu daitekeen interes orokorreko obra bihurtzen da.

Seigarrena. Nazioko Gobernuaren eta Nafarroako Foru Komunitatekoaren ustez, Estatu Administrazio Orokorren ekarpenak Estatuaren eta Nafarroaren artean indarra duen Hitzarmen Ekonomikoaren Bosgarren Xedapen Gehigarrian ezarritako aurreikuspenaz baliatuz finantzatu daitezke. Hitzarmena ordenamendu juridikoan txertatu zuen abenduaren 26ko 28/1990 Legeak ahalmena ematen die bi administrazioei Nafarroan egin beharreko inbertsioak batera finantzatzea erabakitzeke, inbertsio horien izaera edo ezaugarriak direla-eta finantzabide hori komeni den kasuetan. Horretarako, Estatu 2000ko Aurrekontu Orokorretan eta Nafarroako Foru Komunitatekoetan sarturik daude kontusail batzuk urte batzuetako gastu horri aurre egiteko.

Zazpigarrena. Belodromoa eraikitzeke interesa zuten administrazio guztiak eta entitate guztiak ere bat etorri ziren Miguel Induráin txapeldun handiari proposatzerakoan sortuko zen kirol hiri berriari bere izena ematea onar zezala, eta Tafallako Udalak txirrindulari apartaren adostasuna erdietsi zuen.

Zortzigarrena. Egin beharreko inbertsioek 1.324.000.000 pezeta egiten dute, gehi obraren proiektu eta zuzendaritzako lansariak, 70.000.000 pezeta inguru, Tafallako Udalak 1996ko abuztuaren 12an onetsitako eta Udal Korporazioaren eta Nafarroako Foru Gobernuaren arteko lankidetzaz ekonomikorako hitzarmen baten bidez finantzaturiko proiektu arkitektonikoaren arabera. Proiektuak Kirolen Kontseilu Nagusiaren zerbitzu teknikoan aldeko txostena jaso zuen 1996ko uztailaren 1ean, alderdi hauei dagokienez: estetika, osagaiak, teknika eta ekonomia. Era berean, proiektuaren ezaugarriek aintzat hartzen dituzte Kirolari buruzko 10/90 Legearen 70 eta 71. artikuluen edukia.

Azaldutakoaren ondorioz, esku hartzen dutenek iritzirik ezean inbertsio honek Nafarroarako ez ezik Estatu osorako ere interesa duen obra batean duela eragina, haren bitartez goi mailako kirol nazionala, berau ere Estatuaren interes orokorrekoa, sustatuko delakoan, Tafallako Udalarekin batera esku hartzen duten administrazio guztiak

HITZARTZEN DUTE

Lehendabizikoa. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak, Kirolari buruzko 10/90 Legean xedatutakoa aplikatuta, eta Nafarroako Foru Gobernuak, Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak emandako eskumenez baliatuz,

parte hartuko dute Miguel Induráin belodromoko obrak egiteko eta hura estaltzeko, eta Tafallako kirol hiria eraikitzeke behar diren inbertsioak finantzatzen.

Bigarrena. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren ekarpenak aurrekontuko 18.101.457A.763 kredituaren kargura egiten dira –2000ko Aurrekontuei buruzko Legean “50.000.000 pezeta Tafallako Udalari Miguel Induráin udal belodromoan kirol azpiegiturak eraiki eta materialaz hornitzeko (Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoari buruzko 28/1990 Legearen Bosgarren Xedapen Gehigarria)” izena du-. Ministerioak eman beharreko kopuruak, gehienez ere, hauexek izanen dira:

2000. urtean	50.000.000 pezeta
2001. urtean	300.000.000 pezeta
2002. urtean	312.000.000 pezeta

Lehendabiziko urtekoaren ordainketa hitzarmen hau izenpetuta tramitatuko da.

Bigarren urtekoaren ordainketa tramitatuko da Tafallako Udalak obraren exekuzio kontratuaren formalizazioa eta lehen eta bigarren urteko ordainketen zenbatekoen justifikazioa, obra ziurtagiri bidezkoa, aurkeztu ondoren.

Hirugarren urtekoaren ordainketa tramitzeko beharrezkoa izanen da Tafallako Udalak aurkeztea Ministeriotik jaso beharreko zenbateko osoaren justifikazioa, obra ziurtagiri bidez.

Estatu Administrazio Orokorren ekarpenak Estatu Aurrekontu Orokorrek ekitaldi bakoitzeko baimentzen dituzten kredituen menpe egonen dira. Aipatu diru-laguntzak jaso ahal izateko ezinbestekoa izanen da alde aurretik frogatzea zorrik ez dela Ogasun Publikoarekin eta Gizarte Segurantzarekin, entitate horiek luzatutako agiri bidez frogatu ere.

Hirugarrena. Nafarroako Foru Gobernuak obraren finantzazioan parte hartzeko konpromisoa hartzen du, aurrekontuko kredituaren kargura, ekarpen hauekin:

2000. urtean	50.000.000 pezeta
2001. urtean	300.000.000 pezeta
2002. urtean	312.000.000 pezeta

Nafarroako Foru Gobernuaren kontura baizik ez dira izanen hitzarmen honetan aurreikusirik dauden lanak gauzatzeko behar diren lurrak erosteko gastuak, eta obrak hasterakoan lur horiek okupatzeko arazorik ez da izan behar, horretarako Tafallako Udalari laguntza eskatzea baztertu gabe.

Laugarrena. Tafallako Udalak konpromisoa hartzen du Miguel Induráin belodromoa estaltzeko lanak eta Tafallako kirol hirikoak, hitzarmen honen azalpen zatiko zortzigarren puntuan aipatzen den proiektu arkitektonikoa gauzatzeko xedea dutenak, lizitazioan jartzeko horretarako deituko den lehiaketa baten bitartez; esku hartzen duten administrazioek lehiaketaren oinarriak aldez aurretik onetsi beharko dituzte, eta halaber, lehiaketa ebatzi behar duen Kontratazio Mahaiko kideetako bat izendatu ahal izanen dute.

Tafallako Udalari dagokio, orobat, obra betetzean, hasierako aurrekontuan ageri den kopurua gaintitu edo desbideratzen den neurrian, hori bere gain hartzea.

Udalak Kirolen Kontseilu Nagusiaren aipamena eginen du obraren karteletan nola jartzen diren orogarrietan, esku hartzen duten gainerako administrazioen kasuan erabilitako letra berdin-berdinekin.

Bosgarrena. Hizarmenetan xedatutakoa betetzen dela ziurtatzeko eta gauzatzeko modua koordinatzeko Jarraipen Batzorde bat eratu da, izenpetu duten administrazioek izendaturiko hiru ordezkari osaturik.

Seigarrena. 2002. urtearen amaieran hitzarmen honen indarraldia akituko da, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 6.2 f. artikuluan aurreikusiriko moduan.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministroa, Pilar del Castillo andrea

Nafarroako Foru Gobernuako Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria, Calixto Ayesa Diandajauna

Tafallako Udaleko alkatea, Luis Valero Errojauna

G Saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 9an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Barañaingo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, argitaratu dadila agintzea.

Iruñean, 2000ko urriaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (5. or.).
- II. Helburua (6. or.).
- III. Norainokoa (6. or.).
- IV. Iritzia (6. or.).
 - IV.1. Barañaingo Udala (7. or.)
 - IV.2. Erakunde autonomoak (7. or.)
- V. Finantzen egoera-orriak (8. or.).
 - V.1. Barañaingo Udala (8. or.)
 - V.2. Erakunde autonomoak (8. or.)
- VI. Barañaingo Udalari buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (14. or.).
 - VI.1. 1999ko aurrekontu bateratuaren bete-tezari buruzko iruzkin orokorrak (14. or.).
 - VI.2. Finantza-egoera 1999ko abenduaren 31n (16. or.).
 - VI.3. Gorabeherak (17. or.).
 - VI.4. Administrazio kontratazioa (18. or.).

VI.5. Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (20. or.).

VI.6. Hirigintza (20. or.).

VII. Erakunde Autonomoak (21. or.).

VII.1. "Lagunak" Udaleko Kirol Zerbitzua (21. or.).

VII.2. "Luis Morondo" Udaleko Musika Eskola (22. or.).

I. eranskina. Barañaingo Udalaren organigrama, 1999ko abenduaren 31n (24. or.).

II. eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa (25. or.).

Barañaingo Udaleko alkateak behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (26. or.).

I. SARRERA

Barañaingo Udala Iruñerrian dago, eta mugakide da Foru Komunitateko hiriburuarekin. 21.178 biztanleko zuzenbideko populazioa dauka –1999ko errolda– eta, beraz, ikuspegi horretatik Nafarroako hirugarren toki entitatea da.

Bere jarduera burutzeko, honako erakunde autonomo hauek dauzka:

- "Lagunak" Udaleko Kirol Zerbitzua.
- "Luis Morondo" Udaleko Musika Eskola.

Bestalde, Iruñerriko Mankomunitatearen barruan ere badago, zeinak bere gain hartzen baititu uraren ziklo integrala eta hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua. 1999an bidaiarien garraioaren arloko eskumenak ere bereganatu zituen mankomunitateak.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1999ko zifrarik garrantzitsuenak honako taula honetan adierazten dira:

(pezetak, milioitan)

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	99-12-31ko langileria
Udala	1.245	1.390	106 (1)
Lagunak	165	162	18 (2)
Musika Eskola	106	113	31 (3)

(1) horietatik 21 aldi baterako lan-kontratudunak dira.

(2) horietatik 4 finko jarraigabeak dira.

(3) aldi baterako langileak, 13.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Barañaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1999ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aurretik aipaturiko legeek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, administrazio-kontratazioari nahiz hirigintza-kudeaketari buruzko arauak eta Nafarroako toki enteei orokorki aplikatzekoak zaizkien gainontzeko arauak.

Kontabilitate eta aurrekontu gaietako araubide juridikoa Nafarroako Toki Administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko iraileko 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuetan ezartzen da. Halere, 1999an araubide hori aplikatzea borondatezkoa zen, eta nahitaezko bilakatuko zen 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Barañaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 1999ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera agertzea, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera 1999ko abenduaren 31n.

e) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 1991ko ekitaldiari buruzkoa baita, Kontuen Ganbara honek eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganbarak Barañaingo Udalaren (hemendik aurrera, Udala) eta haren erakunde autonomoen 1999ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek ere badute kontabilitate orokorra, Udalean ezarritako kontabilitate-ereduaren aplikazio sinplifikatu bati esker.

Beraz, eginiko lanak hauxe izan du arretagai: diru-sarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, eta antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu azterzea.

Hirigintzari dagokionez, gure lanaren arretagai nagusia Plan Orokorren betetzearen azterketa izan da, haren aldaketak aztertuz eta aurreikuspenak noraino bete diren ikertuz.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta -arauei jarraituz burutu dugu lana. Era berean, Udalari alde aurretik bidalitako galdera-sortak agerian utzitako egoera eta arazoak kontuan hartuz beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatu ditugu.

Txostenean daude Udalaren antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Azterketa lana 2000ko maiatzean eta ekainean egin dugu.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei.

IV. IRITZIA

Egindako fiskalizazioaren esparruan, Barañaingo Udaleko eta haren erakunde autonomoetako 1999ko ekitaldiko egoera-orri finantzarioak aztertu ditugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordina-

tzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

IV.I. BARAÑAINGO UDALA

IV.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Erantsi dugun 1999ko aurrekontuaren likidazio egoerak behar bezala agertzen ditu, garrantzizkoak diren ikuspegi guztiei dagokienez, ekitaldiko dirusarrera eta gastuak, kobratzeko dauden esku-bideak eta ordaintzeko dauden betebeharrak, bai eta 1999ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakina.

IV.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

1999ko abenduaren 31ko egoeraren balantzeak Udalaren ondare-egoera behar bezala agertzen du, bi salbuespenekin: ibilgetua osatzen duten saldoen egokitasun edo fidagarritasun eza, eta inbentarioa –1992koa–, gaurkotu gabe baita go.

IV.1.3. Legezatasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezatasun-printzipioari jarraituz egin da, administrazio kontratazioaren esparruan izan ezik, non ikusi ahal izan baita, azterturiko kasuetan, gai horri buruzko arauak urratu direla.

IV.1.4. 1999ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa

Barañaingo Udalak finantza egoera erosoak erakusten zuen 1999ko abenduaren 31n: diruzaintzako gerakin garrantzitsua –871 milioikoa–, aurrezpen garbiko ehuneko altua –ehuneko 22–, zorpetze-maila txikia –ehuneko 4koa– eta 114 milioi pezetako epe luzerako zorra.

Halere, komeni da nabarmentzea Udalak transferentziekiko duen menpekotasuna, oinarriko eta funtsezko finantzabide baitira, izan ere, aitorturiko 100 pezetatik 61 horretatik heldu baitira.

IV.1.5. 1998ko txostenaren gomendioen jarraipena.

Kontuen Ganbarak eginiko aurreko fiskalizazio txostenean, 1998ko ekitaldiari buruzkoan, eginiko gomendioen ezarpenari dagokionez, kontuan hartu behar da 1999. urtearen amaieran egina dela eta denbora gutxi izan dela 1999an garatu ahal izateko.

Aurreko lerrokadan adierazitakoa ahaztu gabe, beraz, alderdi hauek iruditzen zaizkigu aipagarri:

- Barne Araubidearen Erregelamendua ez da onartu.
- Erakunde autonomoen kudeaketaren gaineko jarraipen eta kontrol prozedurarik ez da taxutu ez eta aplikatu ere.
- Epe ertainera eta luzera udal finantzen egoera agertuko duen ekonomia- eta finantza-proiektzio azterlanik ez da egin.

IV.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK

IV.2.1. “Lagunak” Udaleko Kirol Zerbitzua

Gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioak behar bezala islatzen du “Lagunak” zerbitzuaren jarduera, nahiz eta kutxa-irizpidea nagusiki erabiltzen den egitate ekonomikoak kontabilitatean erregistratzean, aurreko ekitaldietan bezalaxe,.

Egindako jarduerak islatzen dituzten eragiketarik ez daude aginduzko kontu-hartzailatza publikoari lotuak, eta kontabilitateko egitateak nahiko atzerapen handiaz erregistratzen dira.

1999ko abenduaren 31ko egoeraren balantzeari dagokionez, kontabilitate sistemaren produktu automatikoa da, garbiketa eta analisi prozesurik gabekoa eta udal ondasunen ez adskripziorik gabekoa. Beraz, fidagarritasun gutxiko dokumentua da.

Azkenik, batez ere aurrekontuaren aldaketen inguruan, indardun arauak ez direla bete ikusi ahal izan da.

IV.2.2. “Luis Morondo” Udalaren Musika Eskola

Gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren liidazioak behar bezala islatzen du Eskolaren jarduera, nahiz eta kutxa-irizpidea lehentasunez erabiltzen den egitate ekonomikoak kontabilitatean erregistratzean, aurreko ekitaldietan bezalaxe.

Egindako jarduerak islatzen dituzten eragiketarik ez daude aginduzko kontu-hartzailatza publikoari lotuak, eta kontabilitateko egitateak nahiko atzerapen handiaz erregistratzen dira.

1999ko abenduaren 31ko egoeraren balantzeari dagokionez, kontabilitate sistemaren produktu automatikoa da, garbiketa eta analisi prozesurik gabekoa eta udal ondasunen adskripziorik gabekoa. Beraz, fidagarritasun gutxiko dokumentua da.

Estatutuen 20. artikulua ez da betetzen. Izan ere, artikulua horrek kontrol eta zaintza eginkizunak batzuk uzten ditu Udalaren esku hainbat arlotan

–ekonomia, kontabilitatea-aurrekontuak eta lan-afarak–, eta udala aurrekontuak eta haien likidazioa onestera mugatzen da.

Laburbilduz, eta ondorio orokor gisa, adierazi behar dugu Udalak honako hau egiten duela:

- Ongi kudeatzen dituela bere aurrekontuak administrazio-ikuspuntu batetik, baina beharrezkoa du:

a) Ondasunen inbentarioa gaurkotzea, udalaren jabetzakoak bermatzeko bitarteko gisa.

b) Ibilgetuaren saldoak berrikustea, osaketa behar bezala isla dezaten.

c) Sektore publikoaren kontabilitate plan orokorrean aurreikusitako urteko oroit-idazkia prestatzea.

- Administrazio kontratazioari buruzko araudia zorrozki bete behar du, bereziki kontratazio espedienteen formalizazioaren inguruko alderdiei eta proiektuen adjudikazioan lehiakortasun printzipioa aplikatzeari dagokienez.

- Finantzen ikuspuntutik, epe laburrean behar bezalako egoera zuzena bada ere, epe ertain eta luzerako estimazioek badirudi baliabide berekiak sortzeko gaitasuna akitu litekeela adierazten dutela.; planeamenduan jasotako hirigintzako aurreikuspenak ere ia amaituak daudela kontuan hartuz gero, esandakoa areagotu egiten da, ez baitago udal dermioa zabaltzeko aukera fisikorik. Funtsean, egoera honek honakoak egin daitezela eskatzen du:

a) Udalaren lehentasunezko premien eta horien finantzabideei buruzko proiektio ekonomiko-finantzarioak.

b) Aplikatzekoa den zerga-presioaren gaineko azterlanak.

c) Zerbitzuen kostuari eta herritarrengan duen eraginari buruzko analisisia.

d) Funtzionarioen montepioen eraginaren kostuari buruzko azterlanak eta hautabideak. Kopuru hori 124 milioikoa da, hau da, langileria-gastuen ehuneko 21, baina alderdi hau ez da udalaren eskumenekoa.

e) Oinarrizkoak edo nahitaezkoak ez diren zerbitzuak emateari buruzko erabakiak arrazionaltasunez hartzea.

Guztiaren helburua udalaren finantza-bidera-garritasuna bermatzea da.

- Erakunde autonomoiei dagokienez, beharrezkoa da haien estatutuak osatu eta gaurkotzea,

haien benetako autonomia maila agertzera emanaz bai eta udalak haien jardueraren gainean erabiltzen dituen kontrola eta zaintza mekanismoak erakutsiz.

Alabaina, ez da ahaztu behar erakunde horien eragiketak, entitate publikoak direnez gero, kontu hartzailetza publikoari lotuak daudela; horregatik, eginkizun hori benetan egin ahal izateko udalaren kontu hartzailetzak prozedurak diseinatu behar ditu.

Halaber, kontabilitateko egungo sistema kudeaketak eskatzen duenerako egokia den aztertu behar da, eta benetako beharrezan eta kontabilitate publikoaren betekizunen artean oreka aurkitzen saiatu behar da.

Arte Eszenikoen Zentroaren –lehen, auditorio– lanen egoeraz, bestalde, esan behar da 2000ko martxoaren 30ean lanak adjudikatzeko lehiaketaren baldintzen plegua onartu dela; aurrekontua 335 milioi pezetakoa da, eta txosten hau luzatu den egunerako 327 milioi pezeta daude adjudikaturik. Halere, ez dago zentro honen erabileraz zehatzaren inguruko azterlanik, eta ez dago zehaztuta nola egingen den kudeaketa, ez eta gastuak finantzatzeko modua ere.

V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

Jarraian, Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzei buruzko egoera-orriak aurkezten ditugu. Txostena baliagarriagoa izan dadin, azalpena honako hauetara mugatuko dugu:

V.1. BARAÑAINGO UDALA

- Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen

araberakoa.

- Udalaren gastuen aurrekontuaren likidazioa, sailkapen funtzionalaren araberakoa.

- Udalaren 1999ko abenduaren 31ko egoerari buruzko balantzea.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1999ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina.

V.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK

- Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen araberakoa.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1999ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina.

Barañaingo Udalaren aurrekontuaren betetzea, 1999-12-31n

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea (pezetak, milakotan)

	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin-betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubideak	Kobratua	Kobratzeke	Betetze %	% aitorturiko gutzizkoaren gainean
Zuzeneko zergak	1	312.000	0	312.000	346.741	320.736	26.005	111	25
Zeharkako zergak	2	85.000	0	85.000	36.545	24.114	12.431	43	3
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	3	120.980	1.394	122.374	123.446	102.471	20.975	101	9
Transferentzia arruntak	4	779.970	1.907	781.877	826.914	806.366	20.548	106	59
Ondare diru-sarrerak	5	30.200	0	30.200	31.272	29.807	1.465	104	2
Inbertsio errealak besterentzea	6	0	0	0	0	0	0	0	0
Kapital transferentziak	7	68.100	-28.000	40.100	25.578	5.419	20.159	64	2
Finantza-aktiboaren aldaketa	8	0	219.106	219.106	0	0	0	0	0
Finantza-pasiboaren aldaketa	9	0	0	0	0	0	0	0	0
Diru-sarrerak, guztira		1.396.250	194.407	1.590.657	1.390.496	1.288.913	101.583	87	100

Gastuen aurrekontuaren betetzea (pezetak, milakotan)

	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin-betiko aurreikuspena	Aitorturiko betebeharrak	Ordainduta	Ordaintzeke	Betetze %	% aitorturiko gutzizkoaren gainean
Langileen ordainsariak	1	602.400	2.920	605.320	581.964	570.498	11.466	96	47
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	2	365.955	13.098	379.053	332.475	285.973	46.502	88	27
Korrituak	3	1.450	0	1.450	1.190	1.190	0	82	0
Transferentzia arruntak	4	91.200	16.959	108.159	98.966	87.235	11.731	92	8
Inbertsio errealak	6	284.795	160.416	445.211	179.007	144.878	34.129	40	14
Kapital transferentziak	7	100	1.014	1.114	1.114	0	1.114	100	0
Finantza-aktiboaren aldaketa	8	0	0	0	0	0	0	0	0
Finantza-pasiboaren aldaketa	9	50.350	0	50.350	50.335	50.335	0	100	4
Gastuak, guztira		1.396.250	194.407	1.590.657	1.245.051	1.140.109	104.942	78	100

1999ko aurrekontuaren betetzea, kode funtzional/ekonomikoaren ikuspegitik (pezetak, milakotan)

Fun- tzionala	Deskribapena	Langileria gastuak	Ondasun arruntak eta zerbitzuak	Finantza gastuak	Transfe- rentzia arruntak	Inbersio errealak	Kapital transfe- rentziak	Finantza- aktiboak	Finantza- pasiboak	Aitorturiko betebeharrak, guztira	%/ guztizkoa
31	Segurtasun eta babes soziala	233.303	18.537	0	10.532	108	0	0	0	262.480	21
43	Etxebizitza eta Hirigintza	69.358	62.376	0	0	64.566	0	0	0	196.300	16
45	Kultura	22.651	76.014	0	18.279	70.379	0	0	0	187.323	15
42	Hezkuntza	58.194	70.452	0	44.295	7.968	0	0	0	180.909	15
12	Administrazio Orokorra	49.660	31.353	0	7.271	7.635	0	0	0	95.919	8
22	Segurtasun eta babes zibila	80.768	6.294	0	0	778	0	0	0	87.840	7
44	Komunitate-ongizatea	0	47.965	0	8.404	0	1.114	0	0	57.483	5
01	Zor publikoa	0	0	1.190	0	0	0	0	50.335	51.525	4
61	Araupetze ekonomikoa	26.093	6.926	0	0	11.513	0	0	0	44.532	4
32	Gizarte sustapena	27.956	5.535	0	0	0	0	0	0	33.491	3
46	Bestelako komunitate- eta gizarte-zerb.	0	4.757	0	10.185	16.045	0	0	0	30.987	2
11	Gobernu-organoak	13.981	1.914	0	0	0	0	0	0	15.895	1
41	Osasuna	0	352	0	0	15	0	0	0	367	0
Guztira		581.964	332.475	1.190	98.966	179.007	1.114	0	50.335	1.245.051	
% guztizkoaren gainean		47	27	0	8	14	0	0	4	100	100

1999ko egoeraren balantzea (pezetak, milakotan)

AKTIBOA		
Kontuak	Izena	Zenbatekoak (pezetak, milakotan)
	Ibilgetu materiala	576.499
202	Eraikinak	381.725
203	Makinak, instalazioak ea tresnak	15.711
204	Garraio elementuak	14.854
205	Altzariak	60.743
206	Informazio-prozesuetarako ekipoak	19.747
209	Espezializaturiko instalazio konplexuak	83.719
	Ibilgetu ez-materiala	7.285
218	Bestelako ibilgetu ez-materiala	7.285
	Inbertsioak erabilera orokorrerako ondasun eta azpiegituretan	158.486
220	Lurrak eta ondasun naturalak	20.581
221	Azpiegiturak eta erabilera orokorrerako ondasunak	137.905
	Zordunak	185.835
430	Aitorturiko eskubideengatiko zordunak, indarreko aurrekontua	101.584
431	Aitorturiko eskubideengatiko zordunak, itxitako aurrekontuak	80.056
561	Emandako aurrerakin eta maileguak	2.012
566	Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak, formalizatzea	452
558	Zordunak, BEZa dela-eta	0
569	Aurrekontukoak ez diren beste zordunak	1.731
	Kontu finantzarioak	898.376
550	Entregak, eragiketak burutzeko	514
570	Kutxa	320

Kontuak	Izena	Zenbatekoak (pezetak, milakotan)
571	Bankuak eta kreditu erakundeak, ctas. Operativas	896.348
572	Bankuak eta kreditu erakundeak, cuentas restrictivas recaudac.	2.194
	Aktiboa, guztira	1.827.481
	Aktiboko ordena-kontuak	
	Aktiboko ordena-kontuak	282.056
062	Geroratze eta zatikatzearen berme gisa eskainitako dokumentuak	282.056
	Aktiboko ordena-kontuak, guztira	282.056

PASIBOA		
Kontuak	Izena	Zenbatekoak (pezetak, milakotan)
	Ondarea eta erreserbak	1.115.324
100	Ondarea	141.014
130	Aplikatzeko dauden emaitzak	974.310
	Kapital diru-laguntzak	163.707
145	Autonomi erkidegoenak	101.359
147	Enpresa pribatuenak	29.484
148	Familienak edo irabazi-asmorik gabeko erakundeenak	32.864
	Epe luzeko zorrak	114.448
160	Epe luzeko maileguak	14.448
170	Epe luzeko barneko maileguak	100.000
	Epe laburreko zorrak	133.521
400	Aitorturiko betebeharren hartzekodunak. Indarreko aurrek.	8.681
401	Aitorturiko betebeharren hartzekodunak. Itxitako aurrekontua	877
410	Agindutako ordainketengatiko hartzekodunak. Indarreko aurrek.	96.262
411	Agindutako ordainketengatiko hartzekodunak. Itxitako aurrek.	234
420	Dirusarrerak itzultzeagatiko hartzekodunak	27
475	Ogasun Publikoa, kontzeptu fiskalengatik hartzekodun	14.192
477	Gizarte Segurantza hartzekoduna	1.452
478	Ogasun Publikoa, jasanarazitako BEZa	117
510	Jasotako gordailuak	0
512	Funtzionarioen gizarte-aurreikuspeneko entitateak	1.104
516	Aurrekontuz kanpoko ordainketak formalizatzea	87
519	Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak	4.490
520	Epe laburreko fidantzak	5.998
	Aplikatzeko dauden kontusailak	692
554	Ingresos pendientes de aplicación	674
555	Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	18
	Ekitaldiko emaitzak	299.789
890	Ekitaldiko emaitzak	299.789
	Pasiboa, guztira	1.827.481
	Pasiboko ordena-kontuak	282.056
067	Gero. eta zatik. berme gisa eskainitako dok. gordailu-egileak	282.056
	Pasiboko ordena-kontuak, guztira	282.056

Diruzaintza-gerakin bateratuaren egoera

	Zenbatekoak (pezetak, milakotan)	
(+) Ekitaldi bukaeran kobratzeke dauden zordunak		105.097
Diru-sarreraren aurrekontukoak. Indardun aurrekontua	101.583	
Diru-sarreraren aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	80.056	
Merkataritza-eragiketakoak	0	
Beste ente publiko batzuen balibideetakoak	0	
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketakoak	4.195	
Ken kobratzen zailak diren saldoak	-80.056	
Ken behin betiko aplikatzeke dauden diru-sarrerak egindakoak	-681	
(-) Ekitaldi bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak		133.007
Gastu-aurrekontukoak. Indardun aurrekontuak	104.942	
Gastu-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	1.111	
Diru-sarreraren aurrekontukoak	28	
Merkataritza-eragiketakoak	0	
Beste ente publiko batzuen balibideetakoak	0	
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketakoak	27.440	
Ken behin betiko aplikatzeke dauden diru-sarrerak egindakoak	-514	
(+) Ekitaldiaren bukaeran diruzaintzan diren funts likidoak		898.862
Atxikitako finantzaketa daukaten gastuei atxikitako diruzaintza-gerakina		16.008
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina		854.944
Diruzaintza-gerakina, guztira	870.952	870.952

(*) Diruzaintzako funts likidoetan 1999ko abenduaren 31n erabili gabe zegoen kreditu baten 100 milioi pezeta daude sartuta.

Lagunak udal zerbitzua

1999ko gastuen aurrekontuaren betetzea (pezetak, milakotan)

Kap.	Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak	Erresultak	Betetzearen %
1.	Langileen ordainsariak	70.611	0	70.611	66.798	5.944	95
2.	Ondasun arruntak eta zerb. erostea	81.430	9.051	90.481	87.798	9.900	97
4.	Transferentzia arruntak	4.015	65	4.080	4.080	671	100
6.	Inbertsio errealak	4.150	2.158	6.308	6.236	645	99
	Gastuak, guztira	160.206	11.274	171.480	164.912	17.160	96

1999ko diru sarreraren aurrekontuaren betetzea (pezetak, milakotan)

Kap.	Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Gain harturikoa	Ordaintzeke	Betetzearen %
3.	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	151.908	0	151.908	152.613	499	100
4.	Transferentzia arruntak	5.630	0	5.630	6.451	819	115
5.	Ondare diru-sarrerak	2.668	0	2.668	3.288	385	123
8.	Finantza-aktiboen aldaketa	0	11.274	11.274	0	0	0
	Diru-sarrerak, guztira	160.206	11.274	171.480	162.352	1.703	95

Diruzaintzako gerakinaren egoera

	Zenbatekoak (pezetak, milakotan)
(+) Ekitaldi bukaeran kobratzeke dauden zordunak	5.947
Diru-sarreraren aurrekontukoak.. Indardun aurrekontua	1.704
Diru-sarreraren aurrekontukoak.. Itxitako aurrekontuak	0
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoa	4.243
Ken behin betiko aplikatzeke dauden dirusarrerak egindakoak	0
Ken kobratzen zailak diren saldoak	0
(-) Ekitaldi bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak	18.823
Gastu aurrekontukoak. Indardun aurrekontua	17.160
Gastu aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	11
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoa	1.652
Ken behin betiko aplikatzeke dauden dirusarrerak egindakoak	0
(+) Fondo likidoak diruzaintzan	24.270
Atxikitako finantzaketa daukaten gastuei atxikitako diruzaintza-gerakina	0
Remanente de tesorería para gastos generales	11.394
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	11.394

Musika Eskola

1999ko gastuen aurrekontuaren likidazioa (pezetak, milakotan)

Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak	Ordainduta	Ordaintzeke	Betetzearen %
1. Langileen ordainsariak	89.690	90.215	90.174	88.298	1.876	100
2. Ondasun arruntak eta zerb. gastuak	10.714	10.900	9.003	7.014	1.989	83
3. Finantza-gastuak	25	25	11	11	0	44
4. Transferentzia arruntak	0	0	0	0	0	0
6. Inbertsio errealak	6.821	6.921	6.406	4.153	2.253	93
Gastuak, guztira	107.250	108.061	105.594	99.476	6.118	98

1999ko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa (pezetak, milakotan)

Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Kobratua	Kobratzeke	Betetzearen %
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	40.300	40.586	42.905	42.560	345	106
4. Transferentzia arruntak	66.450	66.975	70.056	69.629	427	105
5. Ondare diru-sarrerak	500	500	432	432	0	86
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0
Diru-sarrerak, guztira	107.250	108.061	113.393	112.621	772	105

Diruzaintzako gerakinaren egoera (pezetak, milakotan)

	Zenbatekoak (pezetak, milakotan)
(+) Ekitaldi bukaeran kobratzeke dauden zordunak	1.468
Diru-sarreraren aurrekontukoak. Indardun aurrekontua	772
Diru-sarreraren aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	21
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoa	675
Ken aplikatzeke dauden dirusarrerak, izandakoak	0
Ken kobratzen zailak diren saldoak	0
(-) Ekitaldi bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak	9.060
Gastuen aurrekontukoak. Indardun aurrekontua	6.118
Gastuen aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	9
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoa	2.933
Ken aplikatzeke dauden dirusarrerak, izandakoak	0
(+) Fondo likidoak diruzaintzan	24.752
Atxikitako finantza-desbideraketarekin atxikitako diruzaintza-gerakina	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	17.160
Diruzaintza-gerakina, guztira	17.160

VI. BARAÑAINGO UDALARI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK**VI.1. 1999KO AURREKONTUAREN BETE-TZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK**

Gastu eta diru-sarreraren 1999ko aurrekontuak 1396 milioiko hasierako kredituak

agertzen ditu; hasierako aurreikuspenak horiek baziren ere, zenbait aurrekontu-aldaketa egin dira, gehienak aurreko ekitaldietako gerakina eransteakoak. Behin betiko aurrekontuak, beraz, 1.591 milioi pezeta egiten du

Aitorturiko betebeharrak 1.245 milioikoak dira, eta horien betetze-maila ehuneko 78koa da; kapitulutan, aipatu behar dugu langileria gastuena, ehuneko 96ko betetze-mailarekin, ondasun arrunt eta inbertsioetako gastuena, ehuneko 88ko betetze-mailarekin, eta inbertsioena, ehuneko 40koarekin –hau da, aurreikusitakoa baino 266 milioi pezeta gutxiago–.

Ehunekoak erabilita, honako hau da osaera:

Gastuak	Ehunekoa
Funtzionamendukoak	82
Inbertsiokoak	14
Finantza-zamakoak	4
Guztira	100

Ikus daitekeenez, gastu-elementurik garrantzitsuena funtzionamendu-gastuek osatzen dutena

da –langileria, ondasunak eta transferentzia arruntak–, Udalak gastatzen dituen 100 pezetatik 82 bereganatzen baititu; langileriarako, zehazki, 47 pezeta erabiltzen dira. Finantza-zamak ehuneko 4, eskas, hartzen du 1999an, batez ere amortizazioengatik.

Langileriarri dagokionez, 1999ko abenduaren 31n honako langile hauek ziharduten lanean udalean eta haren erakunde autonomoetan:

Langileak	Zenbat
Behin-behinekoak	2
Funtzionarioak	21
Lan-kontratudun finkoak	62
Aldi baterako lan-kontratudunak	21
Guztira	106

Ikus daitekeenez, lanpostuen ehuneko 58 lan-kontratudun finkoenak dira; ehunekoa 75era igotzen da, berriz, proportzioa lanpostu finkoekiko soilik egiten bada.

Funtzionarioak hauek dira: idazkaria, kontu-hartzailea, diruzaina eta udaltzaina; behin-behinekoak, alkatea, udaltzain burua eta arkitekto teknikoa. Aldi baterako langileetatik 11 gizarte enpleguak dira.

Zinegotzien lansariak 14 milioi egiten dute guztira; horietatik 5,7 Alkatetzari dagozkio. Alkatetzako multzo horren lansari guztiei PFEZa eta haren atxikipenak aplikatu behar zaizkie. Zinegotzienda-

ko dietak erabat salbuetsirik daude, osoko bilkurak hala erabakita.

Osoko bilkurak 2000ko otsailaren 16an hartutako erabakiaren bidez erabateko dedikazioagatik lansaria jasotzen duten zinegotzien ordainsarien ehuneko 30 PFEZa aplikatuzetik salbuetsirik dago, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak egin zuen interpretazioaren arabera.

Era berean, nabarmendu beharrekoa da Funtzionarioen Montepioak 124 milioi pezetako kostua ekarri diola Udalari, hau da, langileria gastu osoaren ehuneko 21 edo zerbitzuak ematen dituen funtzionario bakoitzeko 5,9 milioi pezeta.

Aitorturiko eskubideei dagokionez, 1.390 milioikoak dira, ehuneko 87ko betetze-mailarekin. Kapituluetan, zuzeneko zergak, tasak, ondareko dirusarrerak eta transferentzia arruntak aipatu behar dira, ehuneko 100etik gorako portzentanjenekin. Beste muturrean, zeharkako zergak, eta kapital transferentziak, ehuneko 43ko eta 64ko betetze-mailarekin, hurrenez hurren.

Ehunekoaren araberrako osaerari dagokionez:

Diru-sarrerak	Ehunekoak
Tributuen bidezkoak	37
Transferentzien bidezkoak	61
Ondare bidezkoak	2
Guztira	100

Alegia, 1999ko aurrekontu bateratuaren finantziabide nagusia transferentzietatik, bereziki, arruntek osaturikoa da, –aitorturiko 100 pezetatik 59 finantziabide horretatik datoz–; tributu bidezko dirusarrerak, ordea, ehuneko 37 egiten dute.

Ondoko laukian jasotzen dira tributu-figura nagusiak eta horien zenbatekoa, 1999an aitorturikoa (pezetak, milioitan):

Tributu-figura	Zenbatekoa
Hirilur kontribuzioa	211
I. Jarduera ekonomikoak	34
I. Lursailen plusbalia	24
I. Eraikin, instalazio eta obrak	37
I. Ibilgailuen zirkulazioa	76
Telefónica-ren kanona	8
Hirigintza-lizentziak	19
Irekitze-lizentziak	4
Guztira	413

Nabarmen da hirilur kontribuzioaren garrantzi berezia, gainerako tributu-figurak gainditzen baititu. Bestalde, 1998an dirusarrerara gisa kontabilizatu zen 1997 eta 1998ko ekitaldietako jarduera ekonomikoen gaineko zerga, 1997an Udalak –beste toki entitate guztiek bezala– ez baitzuen ia kudeatu, Nafarroako Gobernuak datu basea eratzeko izan zituen arazoak zirela-eta. 1999an ekitaldi horretako JEZ baizik ez da erregistratzen.

1999ko betetze-egoerak 145 milioiko aurrekontu-superabita erakusten du. Emaitza hori aitorturiko eskubideen eta bete-beharren arteko aldearen ondorioa da.

1999ko abenduaren 31n, ordaintzeko dauden zenbatekoek –gastuen erresultak– 106 milioi pezeta egiten dute, eta horietatik milioi bat pezeta aurreko ekitaldietatik heldu da. Kobratzeko dauden zenbatekoek –diru-sarreraren erresultak– 182 milioi pezeta egiten dute, horietatik ehuneko 44 aurreko ekitaldietakoa da.

1999ko abenduaren 31n, diruzaintza-gerakina 871 milioi pezetakoa da. Kopuru hori honako honen emaitza da: ordaintzeke dauden 133 milioi pezetako zorrak, kobratzeke dauden 105 milioi pezetako diru-sarrerak eta 899 milioi pezetako funts likido positiboak. Itxitako aurrekontuetatik heldu diren eta kobratzeko zeuden kopuruak –80 milioi pezeta–kobratzen zailtzat jotzen dira.

Azkenik, ondoko taulan erakusten da, ehunekoak erabiliz, 1999ko gastu-aurrekontuaren betetzea, eginkizun ezberdinen arabera sailkatua, eta 1998koarekin alderatua.

Eginkizuna	Deskribapena	1999	1998
01	Zor publikoa	4	5
11	Gobernu organoak	1	1
12	Administrazio orokorra	8	8
22	Segurtasuna eta babes zibila	7	7
31	Segurtasuna eta babes soziala	21	23
32	Gizarte-sustapena	3	3
42	Hezkuntza	15	13
43	Etxebizitza eta Hirigintza	16	15
44	Komunitatearen ongizatea	5	5
45	Kultura	15	17
46	Bestelako komunitate eta gizarte zerbitzuak	2	1
61	Araubide ekonomikoa	3	3
	Guztira	100	100

Horien azterketa egin ondoren, hauxe azpimarratuko dugu:

- 1999an aitorturiko obetebeharren ehuneko 21 “segurtasun eta gizarte babes” eginkizunera-ko erabili zen; haren ondotik “etxebizitza eta hirigintza” –ehuneko 16– eta “kultura” eta “hezkuntza” –ehuneko 15. Gainerako egonkizunen artean banatzen da aitorturiko betebeharren gainerako ehuneko 33.

Eginkizun multzo garrantzitsuenen osaketa ekonomikoari dagokionez, aipatu beharra dago “segurtasun eta gizarte babes” izenekoan gastuen ehuneko 89 langileriarenak direla; “etxebizitza eta hirigintza” arloan gastu handienak langileriarenak eta inbertsio errealeak dira, ehuneko 35 eta 33rekin, hurrenez hurren, eta azkenik, “kultura” eta “hezkuntza” multzoetan, gastu handienak ondasun eta zerbitzu arruntenak dira, ehuneko 40rekin.

- 1998ko datuekin konparatuz gero, ehunekoak aurreko ekitaldikoan antzekoak dira, baina azpimarratzekoa da gora egin dutela pixka bat hezkuntzari, etxebizitzari eta hirigintzari dagozkio- enek; antzeko proportzioan, behera egin dute, aldiz, segurtasun eta gizarte babesari eta kulturari dagozkienek.

VI.2. FINANTZA-EGOERA 1999ko ABENDUA-REN 31n.

1999an Udalak dauzkan ratio edo adierazleak honakoak dira, 1998ko datuekin konparatuta:

Adierazleak	1999	1998
Aurrekontu-superabita/defizita (pezetak, milioitan)	364	(95)
Bizt. bakoitzeko dirusarrerak (pezetak)	162.659	131.032
Biztanle bakoitzeko gastuak (pezetak)	127.363	140.289
Bizt. bakoitzeko finantza-karga (pezetak)	10.934	7.752
Bizt. bakoitzeko tributu-dirusarrerak (pezetak)	49.223	45.652
Kobrانتzen betetzea (ehunekoa)	80	85
Ordainketen betetzea (ehunekoa)	89	82
Zorpetze-maila (ehunekoa)	11	8
Zorpetze-muga (ehunekoa)	15	15
Aurrezpen garbia (ehunekoa)	4	7
Langileria-indizea (ehunekoa)	45	37
Inbertsio-indizea (ehunekoa)	23	37
Dirulaguntzekiko menpekotasuna (ehunekoa)	47	48

Eginiko azterketatik, hauxe azpimarratzen dugu:

- 1999ko ekitaldian 145 milioi pezetakoa da aurrekontu-superabita; 1998an, berriz, superabita 124 milioikoa izan zen.

- Aitorturiko eskubideak ehuneko 10 igo dira, 1998ko ekitaldikoekin alderaturik, batez ere transferentzia arruntak igo direlako. 1999an, kapitulu horretako diru-sarrerak 806 milioi pezetakoak izan ziren, eta aurreko ekitaldian, berriz, 703 milioi pezetakoak.

- Aitorturiko betebeharren igoeraren ehunekoak diru-sareren igoerarena baino txikixeagoa da, eta horixe da aurrekontu-superabitaren arrazoia. Biztanle bakoitzeko gastuak 1998an 55.059 pezetakoak izatetik 58.790 pezetakoak izatera pasatu dira 1999an..

- Tributuen bidezko diru-sarrerak, biztanle bakoitzeko, ehuneko 3 igo dira, eta 1999an 23.927 pezetakoak dira. Arrazoietakoa bat izan daiteke jarduera ekonomikoen gaineko zergaren bidezko diru-sarrerak jeisteak izan duen kontrako ondorioa, 1998an, ekitaldi horretakoaz gain, 1997koa ere erregistratu zelako, eta diru-sareren gainerako kontu-sail gehienak igo direlako.

- Biztanle bakoitzeko finantza-zama ehuneko 2,5 jeitsi da aurreko ekitaldiarekiko, batez ere Nafarroako Aurrezki Kutxarekin dagoen kreditua- ren muga jeitsi egin delako.

- Zorpetze maila mantendu egiten da, 1999an ehuneko 4koa, alegia; zorpetze muga, ordea, 4 puntu igo da. Ildo berean, aurrezki garbiaren ehuneko 18tik 22ra igo dela ikus daiteke.

- Langileriako gastuek gastu guztien ehuneko 47 osatzen dute, 1998ko adierazlea baino hiru puntu txikiagoa. Inbertsio adierazlea ehuneko 14koa izan da, aurreko ekitaldikoa baino hiru puntu handiagoa.

- Aitorturiko eskubideak aitorturiko betebeharrak baino gehiago handitu izanak aurrezki gordina eta garbia handitzea eragin dute, finantza-zama aurreko ekitaldiaren parekoa delako, ez baita mailegu berririk eskatu eta 1998ko abenduaren 31n bizirik zeudenak direlako.

- Dirulaguntzekiko menpekotasuna handia da oraindik eta 1998koa baino altuxeagoa. Diru-sareren ehuneko 61 inguru diru-laguntzen bitartez jasotzen da (arruntak eta kapitalekoak).

1999ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokionez, hona azalpena (pezetak, milioitan):

Adierazleak	1999
Diruzaintza-gerakina	870
Epe luzeko zorra	114

Hau da, gastu orokorretarako diruzaintza gerakinak aise betetzen ditu epe luzerako zorretik

heldu diren finantza premiak eta garrantzizko finantzabidea da 2000ko aurrekonturako.

Finantzazio atxikia duten gastuei atxikitako diruzaintza gerakina, 16 milioi pezetakoa, Alaitz ikastetxe publikoko lanengatik eginen diren gastuei atxikitako diru-sarrera 1999an aitortuei dagokie. Lan horiek 2000ko ekitaldian egitea dago aurreikusirik.

Bestalde, epe luzerako zorra honakoek osatzen dute:

- Nafarroako Gobernuak 1989an emandako mailegu bat, ehuneko 5eko interes tasarekin; 1999ko abenduaren 31n 14 milioi pezeta zeuden ordaintzeko, 16 urte-kuotetan banaturik. Horien helburua lokalen erosketa finantzatzea zen.

- Ohiz kanpoko aurrekontuak finantzatzeko kreditu bat, erabili gabekoa, 100 milioi pezetako muga duena 1999ko abenduaren 31n, eta urtero 50 milioi jeisten dena.; 1991ean emana da, ehuneko 15,5ko hasierako interes tasarekin –1996n birnegoziatua, mibor + 0,5 oinarri hartuta–.

Aurreko datuek arazorik gabeko finantza egoera erakusten dute; horregatik, komeniko litzateke aztertzea ea kreditua bizirik mantentzea interesgarria den ala hobe den hori garaiz aurretik kitatzea.

Azkenik, hurrengo taulan, Barañaini buruzko 1999ko informazioa eta Nafarroan biztanle-tarte berean –10.000tik 50.000ra bitarte– dauden beste udal batzuetako 1997rako batez bestekoa⁽¹⁾ alde-ratuta agertzen dira, zenbait ratorri dagokionez:

Ratioak	Nafarroako T.E. 1997 (10.000-50.000 bizt.)	Barañain 1999
Gastu arrunta/biztanle	80.258	47.852
Dirusarrera arrunta /bizt.	99.772	64.450
Zerga dirusarrera/biztanle	54.593	23.927
Zorpetze-muga	23	26
Zorpetze-maila	7	4
Zorpetze-ahalmena	16	22

Alderaketa horrek dituen mugak kontuan izanik⁽²⁾, Barañainen kasuan, zentsua hirikoa izanik ia osotara, bereziki garrantzitsua delarik, Barañaingo egoerari buruz 1998ko txostenean emandako ondorioek indarra dute oraindik ere; hau da, biztanleen gastuak eta dirusarrerak tarte horretara

koenen erdia baino gehixeagokoak dira, baina zorpetze maila txikiagoa dute.

Ondorio gisa esan beharra dago Barañaingo Udalak 1999ko abenduaren 31n finantza egoera egokia duela, baina finantza akiduraren zantzuekin, urbanizazio lanak amaituta zabalteko ahalmena oso txikia delako, etxebizitzaren eraikuntzari nola eragin ekonomikoa duten bestelako zerbitzu edo jarduerari dagokienez, eta dagoen zerga presioa oso ahula delako.

Egoera honek, gure iritiz, neurri hauek hartzea eskatuko du:

- *Tributu baliabideak eskuratzeko gaitasunaren gaineko azterlan sakona egitea, tributu arloko egungo legeriak toki entitateetarako aurreikusten dituen mekanismoak eta aukerak kontuan harturik.*

- *Zerbitzu publikoei, batez ere nahitaezkoak ez direnei, aplikaturiko egungo tasa eta prezioen kostua noraino ordaintzen duten aztertzea.*

- *Plan ekonomiko-finantzario bat garatzea, alderdi hauek aztertzeko: emandako zerbitzuak, eskaria eta haren finantzazioa, beharrezkoak diren inbertsioak eta horien lehentasunak eta gastuei eusteko eta baliabideak lortzeko politikak.*

- *Bizilagunak informatu eta jabeazteko kanpainak egitea, jakin dezaten funtsean zein diren Udalaren finantza beharrezkoak, zerbitzu gehiago emateari edo jadanik daudenak handitzeari dagokionez.*

Neurri horiek hartzeak saihestuko luke, hein batean behintzat, Nafarroako Gobernuaren transferentzien bidezko diru sarrerekiko menpekotasun gero eta handiagoa, eta Udalari finantza autonomia handiagoa emateko bide izan liteke. Horrek guztiak Udalaren bideragarritasun finantzarioa bermatzea izanen luke azken helburu.

VI.3. GORABEHERAK

Udalak emandako informazioaren arabera, honako hauek dira ebazteke dauden errekurtso nagusiak:

- Konstituzio Auzitegian aurkezturiko babes errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiak, 1997ko otsailaren 20an (320/1994 auzia), zenbait lanposturen deialdia, euskara balioesteko modua

(1) Datu hauek Toki Administrazioiko Departamentuak emandakoak dira, eta Ganbara honek Toki Sektore Publikoari buruzko txostenean eman zituen argitara.

(2) Ondokoak eduki behar dira gogoan, batez ere: alde batetik, zerbitzu publikoak emateko modu ezberdinak eta zerbitzu horien kalitatea; bestetik, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuen eragin koiunturalak.

zela-eta, baliogabetzeko eman zuen epaiaren aurkakoa. Epaiak betetzeak zenbait langile lanetik bidaltzea ekarriko luke, eta ez da oraingoz gauzatu.

- Nafarroako Auzitegi Nagusiak aipatu epaiak eman baino lehenagotik badira zenbait auzi lanpostu elebidun horiek betetzeko deialdiei buruzko udal erabakien kontra.

- 279/1997 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, eraikuntzako enpresa batek aurkezturikoa Udalaren Gobernu Batzordeak, 1996ko abenduan hartu zuen erabakiaren kontrakoa. Erabaki horren bitartez, zehapen bat ezarri zitzaion obra kontratu bat betetzen izandako atzerapenagatik. Zehapena 5,3 milioi pezetakoa da.

- Udaleko alkate ohi batek kalte eta galerak direla-eta aurkeztutako erreklamazioa, 25 milioi pezetakoa. Udaleko abokatuaren ustez, erreklamazioak ez du inolako justifikaziorik.

- 1110/00 administrazioarekiko errekurtsioa, administrazioarekiko auzien Sailean, 1999ko azaroaren 11n Riocenter enpresaren eta Udalaren arteko hirigintza hitzarmena onesteko harturiko erabakien kontra.

Txosten hau egin den unean, tributuen arloko ikuskatze-epenen barrenean daude Udalak deklaratu dituen zerga guztiak.

VI.4. ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

Atal hau banatu egin da, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko hainbat puntutan, eta, bestetik, inbertsioetan.

VI.4.1. Hornidurak erostea eta zerbitzuak ematea

Udalak 1999an kontraturiko bi zerbitzuren gainean egindako lanetik aipagarria iruditzen zaigu:

Kirol jardueren programa egiteko zerbitzuen kontratazioa

Espedientea aztertzean atzemandako akats nagusiak hauexek dira:

a) Lizitatuzaileek aurkeztu beharreko informazioan ez dago aipamenik enpresarioak izan beharreko sailkapenez.

b) Kontratuak adjudikatu aurretik ez da gastua fiskalizatu, eta hori dela-eta, kontu-hartzailearen txosten negatiboa dago.

c) Espedientean ez da ageri NAO-n argitaratu den adjudikazioaren emaitza.

d) Behin betiko fidantza ez da aurkeztu kontratua formalizatu aurretik.

Muskulazio aretoa, sauna eta squash-a kudeatzeko kontratazioa

Espedientea aztertzean atzemandako akats nagusiak hauexek dira:

a) Espedientean ez da ageri kontratuaren beharrezko arrazoirik.

b) Espedientea tramitatu aurretik kontu-hartzaileak ez du gastua fiskalizatu, eta hori dela-eta, kontu-hartzailearen txosten negatiboa dago.

c) Ustiatzeko aurreproiekturik ez da prestatu espedientea tramitatu baino lehen.

d) Kontratuaren lizitazioa ez da prentsan argitaratu.

e) Gainerako lizitatuzaileei ez zaie adjudikazioaren emaitzaren berri ematea.

f) Espedientean ez da ageri NAO-n argitaratu den adjudikazioaren emaitza.

g) Behin betiko fidantza ez da aurkeztu kontratua formalizatu aurretik.

Ondoren, beste gai batzuk aipatzen dira, Udalak jasotako zerbitzuen gaineko frogak egitean agerian gelditu baitira:

Lan-kontratudunen nominak egiten dituen kanpoko aholkularitza-bulegoaren dagoen harremanari buruzko dokumenturik ez dago oraindik kasuan kasuko kontratuan.

Aurreko ekitaldian bezala, harreman horiek kontratuaren formalizazioa da gure gomendioa.

Kontuen Ganbara honen gomendioak betetzeko, erosketen kudeaketarako prozedura normalizatu aplikatzen da; halere, egin dugun laginketatik gomendio hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Ezarritako administrazio zirkuituak betetzea, udal kontu-hartzaileak idazkaritzatik tramitatu diren erosketen prozesu guztietan esku hartzea bermatzeko.

- Espedienteen prestaketa eta tramitazioa arduradun bakar batengan zentralizaturik egon behar dira.

- Jarduketan bati buruzko dokumentazioa dagoen espedientean artxibatu behar da, eta espedientea osorik aurkeztu.

VI.4.2. Inbertsioak

Azterturiko inbertsioetatik aipatu behar dugu

Gazteentzako Baliabideen Zentroa eraikitzea

Obra hauen datu nagusiak hauexek dira:

Adjudikazioaren prozedura	Publizitaterik gabe negoziatua
Lizitazioaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	90,4
Adjudikazioaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	90
Adjudikazioa/lizitazioa, aldea, %	(% 0,4)
Azken ziurtapenaren zenbatekoa	Amaitu gabeko obra

Obra hau behin betikoz adjudikatu da publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez, aurretik eta bi aldiz obra hau enkantearen prozedura murriztua erabiliz lizitatu eta bietan eman gabe gelditu baitzen, lizitatuak, lizitazio aurrekontua behar adinakoa ez zela iritzirik, uko egin ziotelako.

Obra adjudikatu zaio parte hartzeko gonbidapena jaso zuten sei eskaintzetatik aurkeztu zen bakarrari.

Espedientearen tramitazioan atzemandako ez-betetzeak:

- Obra espedientearen tramitatu aurretik ez da obraren zuinketa egin.
- Ez da ageri NAOn argitaratu den obraren adjudikazioa.

Etxeorrazten Hiribidea eta Kirolen Hiribidea asfaltatzeko lanak.

Obra hauen datu nagusiak hauexek dira:

Adjudikazioaren prozedura	Enkantea
Lizitazioaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	27,4
Adjudikazioaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	27,1
Adjudikazioa/lizitazioa, aldea, %	(% 1)
Azken ziurtapenaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	25,4
Likidazioa/adjudikazioa, aldea, %	(% 6,3)

• Adjudikazioa egin aurretik ez da gastua fiskalizatu eta hori dela-eta, kontu-hartzailearen txosten negatiboa dago.

• Obra espedientearen tramitatu aurretik ez da obraren zuinketa egin.

• Ez da ageri NAOn argitaratu den obraren adjudikazioa.

Kiroldegia zaharberritzeko obrak

Obra hauen datu nagusiak hauexek dira:

Adjudikazioaren prozedura	Publizitaterik gabe negoziatua
Lizitazioaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	27
Adjudikazioaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	26,6
Adjudikazioa/lizitazioa, aldea, %	(% 1,5)
Azken ziurtapenaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	28,7
Likidazioa/adjudikazioa, aldea, %	% 7,9

Adjudikatze prozedura publizitaterik gabeko prozedura negoziatua da, aurreko lizitazioan eman gabe gelditu ondoren. Parte hartzea txikia izan zen, eskaintza bakarra aurkeztu baitzen.

Eskaintza aztertuta, honakoa adierazi behar dugu:

- Obra espedientearen tramitatu aurretik ez da obraren zuinketa egin.
- Ez da ageri obraren adjudikazioa NAOn argitaratu den, ezta lizitatuak ere adjudikazioa jakinarazi zaien ere.

Horren guztiaren ondorioz, ikuskatutako laginari buruzko **laburpen orokor gisa**, Ganbara honen iritziz hobekuntza gertatu da arlo horretan, baina Udalarari gogorarazi nahi dio beharrezkoa dela administrazio kontratazioari buruzko arauak zorrotz betetzea.

Era berean, komenigarritzat jotzen dugu ondoko neurri hauek hartzea munta ekonomiko handi-goko lanetarako:

• *Indarra duen legeria aplikatzea kontratazio prozesuan eta espedientearen tramitazioan. Komeniko litzateke espediente bakoitzari buruzko informazioa zentralizatzea.*

• *Administrazio jarduketaren guztiak behar bezala –dagozkion txosten juridiko eta ekonomikoen bidez– justifikatzea.*

• *Urte anitzeko gastuen eta finantzazio atxikia dutenen kontabilitate modulua garatzea.*

• *Kontrol ekonomiko egokia egitea obraren gainean, lanaren adjudikazio prezioaren eta horien likidazioaren artean desbideraketa positiborik gerta ez dadin.*

• *Lizitazio aurrekontu egoki eta errealistak prestatzea, ahalik eta eskaintza gehien aurkeztu daitezkeen eta adjudikazio prezioak txikiagoak izateko.*

VI.5. BESTELAKO KUDEAKETA-GOMENDIO-AK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Ganbara honen aburuz Udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura,

kontabilitate-eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

VI.5.1. Antolamendu orokorra.

- *Indardun plantillaren osaketa eta neurriak aztertzea, langile guztiek eta bereziki beheko mailakoek egiaz betetzen dituzten lanekiko eta dauzkaten egungo beharrekiko egokiak diren egiaztatze.*

- *Barne Araubideari buruzko Erregelamendua -ren zirriborroa aztertu eta onestea. Hartan, Udala -ren organo exekutiboaren eskumenak finkatu eta bereizi beharko dira.*

VI.5.2. Inbentarioa-lbilgetua

- *Udal inbentarioa gaurkotzea eta onestea, 1992an eginikoa ez baitzen onetsia izan, ezta ondoren gaurkotua ere.*

- *Udal inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Altak eta bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, eta ibilgetuaren dokumentazioa artxibatzea kontu horiei aplikatzekoak zaizkien kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta depuratzea, behar bezala azal dituzten Udalaren ondasunak.*

- *Udal ondasunen eskrituratze eta erregistratze prozesua osatzea.*

- *Udalaren jabetzakoak diren lokal eta etxabeen erabilgarritasuna eta errentagarritasuna aztertzea.*

VI.5.3. Aurrekontuen egoera-orriak eta aldaketak

- *1999an 16 milioi pezetako desbideraketa positiboa sortu zen, Alaiz ikastetxe publikoan 2.000. urterako aurreikusirik zeuden obrena; horien dirulaguntza 1999an jaso da eta komeniko litzateke hori kalkulatzeko kontabilitateko egoera-orri hau aurkezteko.*

- *Kontuen Batzorde Bereziak Kontu Orokorrak Bakarra legez ezarritako epean, hau da, 2000ko ekainaren 1erako, onestea gomendatzen dugu.*

- *Aurrekontua dagokion ekitaldia hasi baino lehen onestea.*

- *Indardun legerian ezarritakoarekin bat, gomendatzen dugu Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, aurrekontuetako aldaketen hasierako onespenera, hala eskatzen badute, ez ezik, horien behin betiko onespenera ere, alegazio epea behin iraganik.*

VI.5.4. Zordunak-Agentzia Exekutiboa

- *Agente exekutiboekin dagoen harremana kasuan kasuko kontratuen dokumentatzea, eta behar den fidantza ordain dadila eskatzea.*

- *Zorrak agente exekutiboari eskualdatzeko, egungo epeak edo aldiak baino laburragoak ezartzea, hau da, kasuan kasuko erroldak atera ondoko urteko apirila edo maiatza.*

VI.5.5. Langileria

- *Lan-kontratudunen nominen eta kontratuen kanpoko errealizazioari eustea komeni den aztertzea.*

- *Dagokion ekitaldian aitortzea aurreikusirik KPIren eta KPI errearen arteko desbideraketa dela-eta lansarrietan gertatu diren berrikuspenen ondorioz sortutako obligazioak, zein den ere langileei ordaintzen zaien unea.*

VI.5.6. Tributuen bidezko diru-sarrerak, tasak eta prezio publikoak

- *Hiri ondasunak balioesteko ponentzia berrikustea.*

- *Tributu figura bakoitzaren erroldak formalki onestea.*

- *Dagokion ordenantzan onetsitako prezioak zehatz-mehatz aplikatzea eta ordenantzak aplikatu beharreko aurrekontu ekitaldiko lehen eguna baino lehen onestea behin betikoz Toki Administrazioari buruzko 6/90 Legearekin bat.*

VI.6. HIRIGINTZA

Barañainek 1982tik du Hiri Antolamendurako Plan Orokor bat. Azken berrikuspena 1991ean egin da. Berrikuspenak 8 urtean behin egin beharko lirakeenez, 1999. urtea zen beste berrikuspen bati ekiteko unea, baina ez da hala egin.

1999an HAPOren aldaketa puntualerako espediente bati eman zaio hasiera, UO-20 unitatearen, S1 eta S2 sektoreen eta Riocenter, S.L.ren eta Udalaren arteko Hirigintza Hitzarmenaren inguruan. Espediente hori behin betikoz onesteko dago data honetan. 1999an hasitako aldaketa espedientea, UC-22rekin zerikusia

duena eta Nafarroako Aurrezki Kutxak sustatutakoa, 2000ko martxoaren 15ean onetsi zen behin betikoz.

Udalak ez du eratu lurzorua udal ondarea eta ez du kontsignatu ondare horren eraketarako dirusarreraren ehuneko 5, ez eta dirusarrerak atxiki ondare hori kontserbatu, mantendu eta handitzea. Halere, udal dermioa akiturik egoteak zaila egiten du betebeharrak asetzea.

Hirigintzaren arloan irekita daude oraindik Barañaingo Plan Partzialean atikoen jabe diren batzuen kontrako 7 errekurso, horiek itxi izanagatik Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legean hirigintza erabilearen inguruan ezarritakoaren kontra. Kasu guztietan zehapena milioi banakoa izan da, eta Nafarroako Administrazio Auzitegiak ebazpena eman zuen atikoen jabeek aurkeztutako gora jotzeko errekursoa atzera botatzeko.

VII. ERAKUNDE AUTONOMOAK

VII.I. "LAGUNAK" UDALAREN KIROL ZERBITZUA

1999an, "Lagunak" Udalaren Kirol Zerbitzuak 165 milioi pezetako aitorturiko betebeharrak ditu eta 162 milioi pezetako eskubideak. Ondoko tauletan azaltzen ditugu, zenbateko horiek, jatorri ekonomikoaren arabera sailkatuta:

	(pezetak, milioitan)	
Diru-sarrerak	Zenbatekoa Ehunekoak	
Kirol zerbitzuak	153	94
Bestelako diru-sarrera berekiak	3	2
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak	2	1
Barañaingo Udalaren diru-laguntzak	0	-
Enpresa pribatuaren diru-laguntzak	4	3
Guztira	162	100

	(pezetak, milioitan)	
Gastuak	Zenbatekoa Ehunekoak	
Langileria	17	29
Funtzionamendua eta mantentze-lanak	37	63
Inbertsioak	6	3
Guztira	165	100

Dirusarreretan, Zerbitzuaren finantza autonomia handia dela ikusten da; izan ere, ehuneko 94 zerbitzuko jarduerak sortua da. Bestalde, nabarmendu behar da udalaren finantza ekarpena txikia dela.

Gastuei dagokienez, azpimarratu nahi dugu funtzionamendu- eta mantentze-gastuen garran-

tzia, kirol instalazioetan ohikoa den bezala. Inbertsioei buruz, berriz, esan beharra dago Udalarri dagokiola aparteko inbertsioak finantzatu, zuzendu eta betetzea, zerbitzuak instalazioen ohiko funtzionamendukoak bere gain hartzen baititu.

Langileei dagokienez, haien kopurua –gerentea barne– ondoko taulan azaldu dugu; lan- kontratadun finko jarraigabeak uda garaian aritzen dira.

Langileak	Kopurua
Finkoak	14
Finko jarraigabeak	4
Guztira	18

Langile horietatik, gerentea eta administrari-laguntzailea administrazio eta kontabilitateko lanetan aritzen dira.

Ondotik, kudeaketarako gomendio batzuk zehazten ditugu; horiek aplikatzea egokitzat jotzen dugu elkartearen barne-kontrolako sistemak hobetzeko:

• *Estatutuen aldaketa Udalaren osoko bilkurak onetsi behar du, erakunde autonomoaren zuzendaritza batzordeak onetsi ondotik. Era berean, aurrekontuaren aldaketak Udalaren osoko bilkurak onetsi beharri eustea –berez, ez baita betetzen– komeni den aztertu beharko litzateke.*

• *Betebeharrak edo eskubideak ekartzen dituzten egintza oro kontu hartzaileak edo barne kontrolak aztertu beharrekota da.*

• *Aurrekontuak aplikatzen diren ekitaldia hasi baino lehen onetsi beharko dira.*

• *Kontabilitateko sistema eta prozedurei dago-kienez, egungo funtzionamenduak agerian uzten du gomendio hauen beharra:*

a) *Eragiketarako kontabilizatzerakoan, erregistratu beharreko egitatearen sorburutik ahal den hur-bilena egin behar da.*

b) *Gastu guztiak aldeztu aurretik baimendurik egotea eskatzea.*

c) *Kontabilitatea erregistratzerakoan sortzapenaren irizpidea erabiltzea.*

d) *Faktura guztiekin batera dagokien ikus-onespena egotea.*

e) *Administrazio kontratazioaren arauak zorrozki betetzea kirol materialaren hornidura kontratuetan, bereziki kontratu horien adjudikazioan parte-hartzearen irizpidea aplikatzeari dagozkion alderdietan.*

Azken batean, premiazkoa da elkartearen kontabilitate-tratamenduan behar diren aldaketak egi- tea, kontabilitatea kudeaketaren tresna bihur dadin, mekanismo burokratiko hutsa izan partez.

- *Inbentarioaren barrenean, hasteko Udalak ekarritako ondasunen zerrenda ezartzea; ondo- ren, gutxieneko edukia eta informazioa erregulatu- ko dituzten arauak ematea, bai eta horiek kontabi- litatearekiko duten lotura ere.*

- *Dirusarreretan, aipatzekoa da:*

a) *Tarifak organo eskudunak –gaur egun, uda- laren osoko bilkura– behar bezala onetsi behar ditu; betiere aplikatu behar diren ekitaldia hasi baino lehen, eta prestazioaren kostuei buruzko txostenetan agertarazi beharko dira.*

- *Langileak:*

a) *Plantilla organikoa urtero onartu eta argita- ratzea.*

b) *Nominak egiten dituen enpresarekiko harre- mana behar den kontratuaren bidez erregulatzea, hautaketa prozesua egin ondotik.*

c) *Dagokion ekitaldian aitortzea aurreikusiriko KPlaren eta KPI errearen arteko desbideraketa dela-eta lansarrietan gertatu diren berrikuspenen ondorioz sortutako obligazioak, zein den ere langi- leei ordaintzen zaien unea.*

Azkenik, aipatu beharra dugu udalaren kirol jarduerak bai Lagunak Elkartearen bidez –igerile- kuak, pilotalekuak, pistak– bai Udalaren bidez –kiroldegia eta atletismoa– kudeatzen direla. Gure iritziz, kudeaketaren bikoizketa horrek, hasiera batean behintzat, halako kontradikzio bat irudi lezake; izan ere, erakunde autonomo hori kirol arloan bereziki jarduteko sortu baitzen. Hortaz,

Gure gomendioa da udalaren kirol zerbitzuen kudeaketa bateratzea komeni den aztertzea.

VII.2. "LUIS MORONDO" UDALAREN MUSI- KA ESKOLA

1999an, "Luis Morondo" Udaleko Musika Esko- lak (aurrerantzean, Eskola) 106 milioi pezetako gastuak izan zituen eta 113 milioi pezetako diru- sarrerak. Ondoko taulan ikus daiteke zehaztuta gastu eta dirusarrera horien jatorria:

	(pezetak, milioitan)	
Diru-sarrerak	Zenbatekoa Ehunekoa	
Matrikulak eta bestelako diru-sarrera berekiak	45	40
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak	36	32
Barañaingo Udalaren diru-laguntzak	32	28
Guztira	100	100

	(pezetak, milioitan)	
Diru-sarrerak	Zenbatekoa Ehunekoa	
Langileria	90	85
Funtzionamendua eta mantentze lanak	10	9
Inbertsioak	6	6
Guztira	106	100

Ikus daitekeenez, gastuaren egitura batez ere langileen gastuetan oinarritzen da: logikoa da hori, ikusita Eskolak nolako zerbitzua ematen duen. Diru-sarrerei dagokienez, berriz, ikastetxeak sorturiko diru-baliabideek aurrekontuaren ehune- ko 40 egiten dute; beharrezkoa da, beraz, kanpo- ko finantziarioa –diru-laguntzen bidez–, Nafarroa- ko Gobernuarena eta Udalarena: 1999an, ehuneko 32koa eta 28koa, hurrenez hurren.

Langileei dagokienez, 1999 urtearen akabe- ran, Eskolak honako langile hauek zituen, zuden- daria barne:

Langileak	Finkoak	Aldi baterako	Guztira
Irakasleak	17	10	27
Irakasle ez direnak	1	3	4
Guztira	18	13	31

Administrazio eta kontabilitate lanak zuzenda- ria eta administrari-laguntzaile bat aritzem dira.

Ondotik kudeaketarako gomendio batzuk ema- ten dira, Eskolaren barne kontrolaren sistemak hobetzeko komenigarriak direlakoan.

- *Musika Eskolaren estatutuak Udalaren egun- go egiazko antolaketari eta funtzionamenduari egokitzea; batik bat Udalak berak betetzen dituen kontrol eginkizunei, Eskolak kudeaketa-autono- miarako duen egiazko gaitasunari eta Udalaren Kontu-hartzaitzak bete beharreko paperari dagozkien alderdiak.*

- *Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen egintza orok kontu hartzaitzaren edo barne kon- trolaren menpe egon behar du.*

- *Kontabilitateko sistema eta prozedurei dago- kienez, egungo funtzionamenduak agerian jartzen du gomendio hauen beharra:*

a) *Eragiketarako kontabilizatzerakoan, erregistra- tu beharreko egitatearen sorburutik ahal den hur- bilena egin behar da.*

b) *Faktura guztiei dagokien ikus-onetsia erans- tea.*

c) *Kontabilitatea mekanismo burokratiko hutsa izan partez, kudeaketa tresna bihur dadin.*

• *Inbentarioaren barrenean, beharrezkoa da gutxieneko edukia eta gutxieneko informazioa erregulatuko dituzten arauak ematea, bai eta horiek kontabilitatearekin duten lotura ere.*

• *Dirusarreretan, aipatzekoa da:*

• *Langileak:*

a) *Plantilla organikoa, aurrekontuarekin batera, urtero onartzea, kasuan kasuko ekitaldia hasi baino lehen.*

b) *Nominak eta langileen kudeaketako gaine -rako betebeharrak kanpoan egiten jarraitzea*


komeni den aztertzea. Jarraitzea erabakiz gero, egiten dituen enpresarekiko harremana dagokion kontratuaren bidez erregulatzea, hautaketa proze -sua egin ondotik.

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurrei -kusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko irailaren 28an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

1. ERANSKINA. UDALAREN ORGANIGRAMA 99-12-31n



(1) 97-12-31n, LF gaixo dagoelako bajaran dagoena; haren ordez LK bat dago.
 (2) Lanpostua hutsik dago 97ko eta 98ko plantilletan
 (3) Peoi lanpostuetako bi amortizatzeko daude (98ko plantilla)
 (4) 10 peoi lanpostu eta monitorea lanpostu bat; lan-harremanaren amaiera 98-12-31n izanen da.
 (5) 3 peoi lanpostu eta lanpostu bat hirigintza ofizialarena.
 (6) Administral laguntzailearen ordez, 97-12-31n aldi baterako lan-kontratupeko langile bat jarri zuten.
 (7) Langile finkoaren ordez, 97-12-31n eszedentzian dago.
 (8) Langile finko baten ordez (amatasun baxa eta euskara ikastaroa)

F.: Funtzionarioa
 L.F.: Langile finkoa
 L.K.: Aldi baterako lan kontratua
 E.: Ebentuala

II. ERANSKINA. ERABILITAKO ADIERAZLEEN DEFINIZIOA

- Diru-sarreraren betetze-maila =
$$\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$$
- Gastuen betetze-maila =
$$\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$$
- Kobrantzen betetzea =
$$\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$$
- Ordainketen betetzea =
$$\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$$
- Zorpetze-maila =
$$\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$$
- Zorpetze-muga =
$$\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia =
$$\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$$
- Langileria indizea =
$$\frac{\text{Langileen aitorturiko betebeharrak}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$$
- Inbertsio-indizea =
$$\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna =
$$\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$$
- Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko =
$$\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$$
- Gastuak biztanle bakoitzeko =
$$\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko =
$$\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$$
- Presio fiskala edo tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko =
$$\frac{\text{Tributu bidezko diru-sarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko =
$$\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$$

KONTUEN GANBARARI AURKEZTEN ZAIZKION ALEGAZIOAK, UDAL HONETARA IGORRITAKO 1999KO EKITALDIARI BURUZKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA ETA.

1.-8. orrialdean, lerrokada batean honakoa dio txostenak: "Finantzen ikuspuntutik, epe laburrean behar bezalako egoera zuzena bada ere..."

Hor onartzen den bezala, Udal honen finantza egoera zuzena da, eta Korporazioak dauzkan betebeharrak guztiei behar bezal erantzuten zize, hortaz finantzen ikuspuntutik egoera oso eroso da.

Udala irtenbide bilatzera behartuko duen eta dagoena baino diru gehiago eskatuko duen garrantzizko beharrik ez da aurreikusten, baina finantziarioa bilatu beharko da kirol instalazioak handitzeko eta goi mailako kultur jarduerak egiteko, hemendik gutxira asmo horiek gauzatzen hasiko baitira. Komunikabideetan agertu den bezalaxe, plan orokorraren aldaketa bat egin nahi izan da berriki, merkataritzako gune bat eraiki ahal izateko. Espedientea ongi tramitatu da, baina Nafarroako Gobernuak behin betiko onespena emateko garaian, horrek ez du onartu proposatutako aldaketa, txosten eta irizpide aski xelebretan oinarriturik; horren ondorioz, Barañainerako baliabide berri eta garrantzizkoak, lehenago aipatutako kultur jarduerak egin eta kirol instalazioak handitzeko behar zena emanen zutenak, sortzeko bideak itxita gelditu dira.

Nafarroako Gobernuaren erabakiak Nafarroako Auzitegi Nagusian aurkeztu behar diren administrazioarekiko auzi-errekurtsoen xede izanen dira.

2.-8. orrialdean, a) letran, honako hau dio: "Ondasunen inbentarioa gaurkotzea, udalaren jabetzakoak bermatzeko bitarteko gisa".

Badago inbentario bat, Nafarroako Gobernuak 1992an egina. Inbentario hori ez da gaurkotu, baina inbentario berri bat eta horren mantentze-lanak kudeatzeko programa informatiko bat egiten saiatzen ari gara, Nafarroako Gobernuarekin batera –Tokia Administrazioa eta Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioa–, Nafarroako udal eta kontzeju guztien arazoa baita.

3.-8. orrialdean, d) letran, honako hau dio: "Funtzionarioen montepioen eraginaren kostuari buruzko azterlanak eta hautabideak. Kopuru hori 124 milioikoa da, hau da, langileria-gastuen ehuneko 21, baina alderdi hau ez da udalaren esku-menekoa."

Lerrokada horretan onartzen den bezala, Udalak ezin dio konponbiderik eman Montepioaren arazoari, udal aurrekontuari ekartzen dion kostua

Nafarroako Gobernuak banaketa kontuan egiten dituen karguetatik heldu baita. Hortaz, Nafarroako Gobernuak berak bilatu beharko du irtenbidea, gure iritziz.

4.- 18. orrialdea, hirugarren lerrokadan, hauxe dio: "Era berean, nabarmendu beharrekoa da Funtzionarioen Montepioak 124 milioi pezetako kostua ekarri diola Udalari, hau da, langileria gastu osoaren ehuneko 21 edo zerbitzuak ematen dituen funtzionario bakoitzeko 5,9 milioi pezeta."

Gure iritziz lerrokadan honetan gai desberdinek nahasten dira. Lehen esan dugunez, montepio horrek Nafarroako Gobernuari, ez Udalari, eragiten dion defizitak ekartzen du. Ekarririkoa kostua langileria gastuekin alderatzen badugu, ateratzen den portzentaia ezin du inolaz ere aldatu Udalak. Gastua ez da udal jardueran sortzen. Horrez gain, kostua funtzionario bakoitzeko 5,9 milioi pezetakoa dela esatean kontzeptu desberdinek erabiltzen direla uste dugu. Udal honetako jarduneko funtzionario guzti-guztiak ez duade afiliaturik montepio horretan, eta udal plantillari atxikitako azkenei alta eman zaie dagoeneko Gizarte Segurantzaren arabidean. Bestalde, esan beharra dago Nafarroako Gobernuak banaketa kontuan kargatzen duen defizita biztanle kopuruaren arabera banatzen duela batzuetan eta beste batzuetan, berriz, udalak dituen jarduneko funtzionarioetatik kategoriatan horretan dituen kopuruaren arabera, eta horren defizita banatzen u Nafarroako udalen artean.

5.- 28. orrialdean, VI.5.1. idatz-zatian, Antolamendu Orokorra izenekoan, hauxe dio: "Barne Araubideari buruzko Erregelamenduaren zirriborroa aztertu eta onestea."

Barne Araubideari buruzko Erregelamendua eguten ari gara egun, eta hurrengo hilabeteetan tramitatuko da erregelamenduaren arabera, lehen bait lehen eduki ahal izateko.

6.-29. orrialdean, VI.5.5. idatz-zatian, Langileria izenekoan, hauxe dio: Lan-kontratudunen nomen eta kontratuen kanpoko enpresa batek egiten jarraitzea komeni den aztertzea.

Aurrekoetan ere eginiko gomendioa denez, dagoeneko ekin diogu betetzeari. Giza baliabideetarako zuzendari bat kontratatatu da, langileekiko harremanen afera orokorrak ez ezik nominak, Gizarte Segurantzentzako likidazioak, langileak kontratua eta langileria arloko gai guztiak ere eraman ditzan. Horretarako, gainera, administrazioak kontratatatzeko tramiteari eman zaio hasiera.

7.- VI.5.6. Tributu bidezko dirusarrerak izenekoan, hauxe dio: "Hiri ondasunak balioesteko ponentzia berrikustea."

Balioesteko ponentzia hori berrikusteko bidean dago, nahiko aurreraturik, eta onestea baizik ez da falta.

Txostenak hauxe dio aurrerago: "Tributu figura bakoitzaren erroldak formalki onestea."

ekitaldi ekonomiko honetan aipatzen diren errolda guzti-guztiak onesten ari dira, Gobernu Batzordeak horretarako hartutako erabaki espresoarekin.

8.- 30. orrialdea, VI.6.-Hirigintza izenekoan, hauxe dio: "Hirigintzaren arloan irekita daude

oraindik Barañaingo Plan Partzialean atikoen jabe diren batzuen kontrako zazpi errekurso..."

Alkatetzak "Plan Partziala" izeneko aldeko atiko batzuen jabeen zehapenak ezartzeko emandako dekretuen kontrako gora jotzeko errekursoak aurkeztu ziren, eta Nafarroako Administrazio Auzitegiak udalaren tesien aldeko ebazpenak eman zituen. Berriki, Administrazioarekiko Auzien Sailak epai irmoaren bidez berretsi du Administrazio Auzitegiaren ebazpena eta beraz, Alkatezarena.

Barañainen, 2000ko irailaren 21ean

Alkatea: Joaquín Olloqui Osés



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefona *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--